

Guk ez dugu emakume enpresari esplotatzaile gehiagorik nahi ezta neurrigabeko soldatarik ere, sistemak agintzen digun moduan kontsumitzen jarrai dezagun.

Guk bestelako eredu ekonomiko eta politiko bat aldarrikatzen dugu, bitzia erdigunean jarriko duena, lan guztiak aitortuko dituena eta zaintzak justuki banatuko dituena, inor esplotatu, esklabotu eta ikusezin bihurtu gabe.

Editoriala

Martxoaren 8ko ajea eta adrenalina feministaren subidoia pasatuta, kurtsoaren bukaerara iristen ari gara. Borrokaz, aldarrikapenez, proposamenez beteriko kurtsoa izan da. Sektore feminizatuak zein zaintza arlokoak gerrarako prest eta tinko azaldu dira etengabe: kaleak eta erakundeak okupatu dituzte, inork ikusi nahi ez duen hori begien bistara atera dute eta inork egin nahi ez duen lana duindu egin dute.

Soldata arrakalaren aurkako borroka gai-izar bihurtu da agenda politiko zein ekonomikoetan. Itsasontzi bereran gaudela ematen du, gero! Ez da horrela, baina, ondo dakigun bezala. Guk ez dugu emakume enpresari esplotatzaile gehiagorik nahi ezta neurrigabeko soldatarik ere, sistemak agintzen digun moduan kontsumitzen jarrai dezagun. Guk bestelako eredu ekonomiko eta politiko bat aldarrikatzen dugu, bitzia erdigunean jarriko duena, lan guztiak aitortuko dituena eta zaintzak justuki banatuko dituena, inor esplotatu, esklabotu eta ikusezin bihurtu gabe.

Horretan baitatza gure borroka. Egungo sistematik irtetean, beste era batera antolatzean, zapalkuntza anitzak hierarkizatu gabe haien kontra osotasunean eta elkarrekin borrokatzean; gu ez baikara libre izango guztiok aske izan arte.

Eta horrela heldu gara ekainera, nekatuta baina alaitsu, antolatuta, aliatuta eta saretuta kapitalismo basati honi aurre egiteko prest!



Berdintasuna instituzioen estrategia hutsa

Sindikalismo feministatik antolatuak eta saretuak, berdintasun planen iruzurra errotik iraulikidugu. Nondik gatozen badakigu, baina hobe dakigu norantz goazen.

Sumendi baten erupzioa bezala, eztanda egin du berdintasuna lortzeko grina gure jendartean. Urtez urte lur azpian moldeatzen ari den urgori eta harri urtua bezala, feminismoa borrokan aritu da, motel, ikusezin, baina azkenean emakumeen* aldarrikapenak agenda politikora heldu dira.

Eztabaidek, ekiteak, amore ez emateak, borroka molde berrien garaipenak feminismoari lekua eman diote Euskal Herriko instituzioetan.

Baina instituzio eta erakundeen jarrera ez da beti zintzoa izan; olatu feministara gehitu dira, baina, gehienetan, kutsu kritiko eta ideologikorik gabe. Honek berdintasunaren markoa interes borroka eta klientelismoa sorrarazi ditu. Berdintasun politika publikoek porrot egin dute, ez dutelako aintzat hartu emakumeen* eguneroko egoerak, hala nola, prekarietatea, indarkeria, zaintza lanak... Instituzioetatik ez da salaketa zurrunik egin, ezta egoera erraietatik iraulikiduten neurirrik aplikatu ere. Horren ordez, errealitatea apaindu da, azaleko aldaketak bideratu dira eta nahikoak ez diren lege eskasak onartu dira. Iruzurra pixkanaka orrartzuz joan dira, mugimendu feministaren diskursoak bereganatzen, eta erruki gabe euren mesede eta interesetara moldatzen. Honegatik plazaratutako politikak ez dira eraginkorrak eta, are

gutxiago, berdintasun errealaera hertzko tresna baliagarriak.

Ikusi dugu kapitalaren morroiak estruktura hetero patriarkalaren jolasean eroso eta babestuta sentitzen direla, ezer aldatu gabe baina iraultza egin dutela aldarrikatzen. Instituzio atzerakoi, kapitalista eta matxiruloei ez zaie komeni emakumeen askapena, ez zaie feminismoa komeni; izan ere, haien botere eta pribilegioak kolokan jartzen dituelako. Feminismoa errora doa, patriarkatuaren historiaren sustrietaera doa; ez da buelta erdiarekin konformatzen, buelta osoa birritan eman nahi dio sistemari. Instituzioen egiteak eta egiteko formak zalantzan jartzen ditugu, interes ekonomikoa deuseztatzen dugu, indarkeria instituzionala mahai gainean jarri dugu, borroka molde historikoen birpentsatzea plazaratu dugu, gizonen espazioak okupatu ditugu, kapitalismoaren logikak eragiten dituen eskubideen urratzeak zuzenean interpelatu ditugu, beraz, ez ote gara mehatxua eurentzat? Gure indarra neutralizatzen saiatu dira eta horregatik feminismoaren diskursoa instituzioetan onartzen da baina lupaz begiratua eta aztertua.

Gure eskakizunak agendaran txertatu dituzte, baina modu taktiko batean. Feminismoa ez da inondik inora haien estrategia, ez dute epe luzerako ulertzen.

Taktikoki mugimendu feministari legitimitate publikoa eman diote, taktikoki Emakunde erakundearen sorrera bultzatu zuten, taktikoki enpresak berdintasun planak izatera behartu dituzte, taktikoki berdintasuna bultzatzen duten elkartea, enpresa edo kontsultoriei sariak eta diru laguntzak ematen dizkiete. Bitartean emakumeak* zaintza lanak egiten jarraitzen dugu, sektore prekarioetan, indarkeria pairatzen, emakume hutsa izateagatik. Espazio publiko eta pribatuaren arteko talkak egun piztuta dirau. Nahiz eta emakumeak lan mundura integratu eta espazio publikoan ikusgarritasuna izan, gure legitimitatea ez da aitortzen. Honek gure menpekotasun egoeran giltzapetu eta eskubideak bermatuak izateko aukera murritzen digu.

Sindikalismo feministaren aldeko apustua egin dugu, sindikatuko egituraren eztabaidea anitz bultzaturik. Nondik gatozen badakigu, baina hobe dakigu norantz goazez. Prozesu feministaz busti dugu gure sindikalismoa, mahai gainean jarrita formakuntza ezinbestekoa dela eta, are garrantzitsuagoa, zaintzari legitimitatea eta zentralitatea ematea.

Borroka etxe barruan piztuta daukaguhonezker, baina zer gertatzen ari da lantokietan? Lege berriak esaten du 50 langiletik gora dituzten enpresak derrigortuta daudela berdintasun plana izatera. Enpresen aldetik utzikeria eta arduragabekeria dira nagusi, oro har. Langileen artean berdintasuna lortzea eta emakumezkoen baldintza malkar eta desberdinak bukatzea ez omen da premiazko. Izen ere derrigortuak daudenez, premia nagusia berdintasun plana izatea da, axola gabe erabilgarria izango den ala ez. Berdintasun plan gehienak barregarriak dira, helbururik gabekoak, berdintasun politiken inguruko formakuntza barik eginak, aurrekonturik gabe, arduradunik gabe, hitz hutsez betetako orri zentzugabeak dira. Esan dezakegu berdintasun planak porrot hutsa direla, ez dute lantokien berdintasun falta eraldatu, ez dute errotik emakumeen egoera aldatu ezta desberdintasunen ezaugarriak aztertu, ez dute balio egunero lan munduan pairatzen ditugun diskriminazio egoerei aurre egiteko; beraz, ez dira tresna eraginkor eta praktika iraultzaile moduan ulertzen, enpresentzat aurpegi zuritze eta tramite hutsa dira, kasu askotan diru laguntzak jasotzeko.

Errealitate gordin honen aurrean borrokan jarraituko dugu, berdintasun plan ustelak salatzen. Herri eredu feministea eraikitzea, aurreikus berdintasuna

bermatua egon behar da, berdintasun erreala, sinesgarria eta batez ere guztioin implikazioaz eta parte hartzeaz eraikia. Berdintasun planak kritikoak izan behar dira, enpresak emakumeengen ezartzen duten diskriminazioaz jabetu behar dira eta hori aldatzeko berdintasun politika erreala aplikatu behar dituzte. Berdintasun planetan jasotzen diren neurri eta ekintza efektiboak hitzarmenean plazaratu behar dira, hor dago gure borroketariko bat. Delegatuen formakuntzan giltza dagoela ikusten dugu, baina jakinda ez dela haien ardura berdintasun plana egitea. Hau da, negoziaketa araldundu nahi ditugu planek derrigorrez jaso behar dituzten atalak azalduta.

Berdintasun politika publikoek porrot egin dute, ez dutelako aintzat hartu emakumeen* eguneroko egoerak, hala nola, prekarietatea, indarkeria, zaintza lanak... Instituzioetatik ez da salaketa zurrunik egin, ezta egoera erraietatik irauliko duten neurririk aplikatu ere.

Berdintasun plan on bat egitea enpresaren ardura da eta, horretarako, berdintasun politiketan aditua den pertsona bat kontratatu beharko du. Gure delegatuek, formakuntzaren bitartez, planaren jarraipena egin ahal izango dute eta beharrezko den guztia jasotzen dela bermatu.

Zintzoki eginda ez dauden planak eta betetzen ez direnak gogor salatuko ditugu. Berdintasunaren aldeko apustua erreala izan behar da eta, horrela ez bada, ekintza sindikalaren bitartez erantzungo dugu, publikoki gizarteratuko dugu gauzatzen ari den ustelkeria. Berdintasun planak sinatuak dauden enpresetan aurreko egoera gertatzen bada, sinadura kenduko dugu eta publikoki salatu ere egingo dugu, enpresa horren negozioa eta interes falta gizartean ikusgai uzteko.

Berdintasuna lortzeko bidean, gure borroka instituzio eta enpresen eskutan pozoitzen da. Ez diegu utziko beste behin oztopoa izaten; zaitasun guztien gainetik antolatu eta saretuko gara, ekintza sindikal feministaren bitartez negoziatzera eta gure eskakizunak betetzera behartuko ditugu.

Jardunaldi partzialeko kontratuen kotizazioaren araudia aldatzeko eskatu dugu

Europako justiziak berriro ebatzi du Spainiako Gizarte Segurantzaren arautegiak emakume langileak diskriminatzen dituela jardunaldi partzialeko kontratuei dagokienez

2012. urtean Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak eta 2013an Auzitegi Konstituzionalak Estatu Spainolak kontratu partzialen kotizazioa zenbatzeko zuen sistema diskriminatzailea zela eta Batasuneko zuzenbidearen kontrakoa zela ebatzi zuen.

Egun askoz ere denbora gehiagoz lan egin behar da kotizazio epeetara iristeko. Eta kotizatzen dena askoz ere gutxiago denez, pentsioa askoz ere txikiagoa da. Salaketa egin zuen emakumearen kasuan derrigorrekoak diren 15 urteak kotizatzen heltzeko, 98 urtez lan egin behar zuen.

Gainera, kontratu hauek bereziki emakumeok izaten ditugun neurrian (HEHan %80), zenbatzeko sistemak emakumeoi jubilazio pentsioa eskuratzeko bidea oztopatzen eta zaitzen digula ebatzi zuten. Jubilazio pentsioa eskuratzeko garaian, diskriminazio egoera dagoela onartu zuten.

Estatuak salatutako araudia 2013an utzi zuen indarrik gabe eta berria osatu zuen; hala ere, Europak berretsi du oraindik diskriminatzailea

dela, emakumeok ahalegin handiagoa egin behar dugulako pentsioa eskuratzeko kontratu partzialekin lan eginez gero.

LABen diskriminazio honen kontra borrokatu gara. Gobernuaren utzikeria salatu eta informazio

kanpaina egin genuen kontratu partzialen erabilpen handia egiten den sektore eta lantokietan (jantokietan, garbiketan, hezkuntzan...) eta Gizarte Segurantzan hainbat eta hainbat erreklamazio sartu genituen.

Kontratu partzialak iruzurra direla eta emakumeoi bizi osorako prekarietatea dakarkigutela salatu dugu berriro ere. Emakumeak lan mundura sartzea errazteko asmatu ziren, emakumeei zaintza lan ikusezinak inposaturik. Kontratu partzialen betebeharreko baldintza borondatezkoak izatea da eta ondo dakigu hau gezur hutsa dela. Norbaitek ordu gutxi batzuetan baino ez badu lan egiten, pertsona hori langabetu estrukturala da. Eta, gainera, lan merkatuan baldintza hauetan sartzea ez da eskubide laboral eta sozialak eskuratzeko bidea. Jubilazio pentsioarekin gertatzen dena da adibiderik argiena.



Estatuak salatutako araudia 2013an utzi zuen indarrik gabe eta berria osatu zuen; hala ere, Europak berretsi du oraindik diskriminatzailea dela, emakumeok ahalegin handiagoa egin behar dugulako pentsioa eskuratzeko kontratu partzialekin lan eginez gero.





Gure aldarrikapenak argiak dira:

- ⓘ Kotizazioaren arazoa konpontzeko, lan egun bakoitzeko kotizazio egun bat
- ⓘ Lan denbora txikitzeko eta banatzeko politikak
- ⓘ Kontratu partzialen erabilpenean dauden gehiegikeriekin amaitu
- ⓘ Etxeko langileen Gizarte Segurantzaren erregimena bere osotasunean erregimen orokorrarekin ekiparatu
- ⓘ Bizi laboral eta sozialaren arteko kontziliazio eta erantzunkidetasun efektiborako politika feministak

Bada garaia kontratu partzialen auzia agendaren erdian jartzeko. Auzia politikoa da eta ez laborala. Politika feministak behar ditugu, emakume langileak diskriminatzen gaituen jardunaldi partzialeko kontratuen kotizazioaren araudia aldatzeko.

Fotoberriak



Emakumeok ere lanean gaixotzen gara

Lan heriotzen kontra mobilizatzen hasi genuen lan osasunaren aldeko borroka orain urte asko. Urratsa egin genuen, lan osasunari osotasunean eta sakonean begiratu behar zitzaiola esan eta lan gaixotasunen arazo larriari dagokion garrantzia ematen hasi ginen. Aurten aurrera egin dugu eta emakumeon lan osasunari beharrezkoa den begiratua eman diogu. Emakume langileon gaixotasun gehienak ezkutatu egiten dira, ez delako lanaren ondorio zuzena direnik onartzen. Horren kontra ere borrokatu egingo gara..

Emakume gehiago gara sindikatuan

Mamitsua izan da feminismoarentzat bukatzen ari den kurtsoa: Mundu Martxaren jardunaldiak burtu genituen; Martxoaren 8an greba arrakastatsua egin genuen, eta jardunaldi feministak antolatzen ari gara orain. LAB erronka hauen guztin parte izan da, gure erronkak alde batera utzi gabe. Hauteskunde sindikalen garai nagusian buru belarri aritu gara eta hortxe daude emaitzak: sindikatua tope historikoetan dago eta emakumeen ordezkaritza mailak gora egin du berriro ere; ordezkaritzaren %40 pasa emakumeak izatea lortu dugu. Sindikalismo feministak indartzea eta zabaltzea ere bada Euskal Herriko borroka feministak indartzeko bidea.

Etxeko langileen eskubideen alde

Zainduak izateko eta zaintzaileak ez izateko eskubidea aldarrikapen zaharra da sindikatuan, baina ez dago zaharkitu zaizkigun borroken artean. Aitzitik, geroz eta garrantzia handiagoa ematen diogu, ez dagoelako emakume langileen zapalkuntzari buelta ematerik, lan erreproduktiboen aitortza eta berrantolaketa burutuko duen sistema berria lortu arte. Borroka luzea izango da, urratsez urrats egiteko eta tarteko helburuekin osatu behar duguna. Horietako bat da, zalantzak gabe, soldatapeko etxeko lanetan aritzen diren emakumeak babestea eta lan eskubideen jabe egitea. EAEko hitzarmen baten aldeko borroka abiatzea bide emankor baten hasiera izatea nahi dugu LABen.



Langile borrokak emakume aurpegia duenean

Zaintza lanak berrantolatzea ezinbestekoa da duintasuna guztiaren bizitzetara iris dadin. Eremu pribatutik atera eta emakumeon bizkarra euretatik askatu behar da. Aitzitik, hauek ez dira eremu publikora eraman zama kentzeko, ez dute ardura hori berenganatu, eta ez dute egin sistema berrantolatzeko helburuz. Merkatu itzela antolatu dute gure lanaren kontu. Interes ekonomiko partikularrak eta kapitalaren gehiegizko boterea nagusitu dira zaintzari buruzko politiketan.

Eta gertatu behar zena gertatu egin da: emakumeok horrela zapaltzea eta gure lana horrela mespretxatzea gatazka iturri bihurtu da. Prekarietatearen kontra borrokatzentzat ari gara etxeko zerbitzuetan, hirugarren adineko erresidentzietan, garbiketa enpresetan edota jangeletan. Baina hauetan lan eskubideen aldeko borroka hutsetatik baino askoz harago doaz, zaintza lanetan egin behar den iraultza izango baita sistema kapitalista hau aldatzeko urratsik emankorrenetakoa.

Sexu lanaren aitortza premiazkoa dugu

Paula Ezkerra, ekintzaile feminista eta sexu langile ahaldundua. Sexu lanaren inguruko mitoak eraisten eta jarduera hau lantzen aitorrarazteko borrokan aritu eta aritzen da eta horrek, besteak beste, IAC (Intersindical Alternativa de Catalunya) sindikatuan elkartzera bultzatu du. Bere eskarmentu pertsonal eta kolektibotik hitz egin dugu berarekin gai gatazkatsu honen inguruan.

⌚ Paula, IACn antolatuta zaude, sexu lanaren sail sindikalean. Zergatik da garrantzitsua sexu langileak sindikalizatza? Zergatik ez sindikatu autonomo batean?

Guretzat, prozesu honetan, garrantzitsua zen beste langile batzuek lagunduta egotea, aitortzen gaituzten eta ildo politiko zein laboral berbera daukaten beste langile batzuek lagunduta, alegia.

IACk eztabaida prozesu oso bat egin zuen eta sexu lanaren sail sindikal espezifikoan sortzeari bide eman zion. Horixe nahi dugu, eraikuntza kolektibo bat, ez zerbait autonomoa.

⌚ Zergatik ez da sexu lana lantzen aitortzen? Zer gertatzen da berarekin?

Honetan aurreirizti asko daude tartean. Historikoki existitu izan den lanaz hitz egiten ari gara, mespretxatua izan den lana, oro har emakumeek egin izan dutelako. Emakumeon gorputzen gaineko kontrol soziala badago, baita emakume ona edo emakume gaiztoa izatea zertan datzan ere, hau guztia lanbide honekin lotuta dago.

Historikoki sexu langileak ikusiak izan dira zerbait aberrante balira bezala, gaitzesgarriak, moral bako emakumeak, mugarik gabekoak, anbizio handikoak, ezergatik batere ardurarik ez dutenak, ez bada gizonezkoen diruagatik... honelako ikuskerak nagusi izan dira iruditerian.

Hau guztia moralarekin dago lotuta eta pobreziera ere



hedatzen da. Sexu lana egin izan dutenak, historikoki, emakume pobreak izan dira.

⌚ Feminismo putaz hitz egiten duzue, zertaz ari zarete? zein da feminismoarekin daukazuen harremana?

➤ Aitorturik ez dauden lanek ez digute eskubiderik ematen. Gure lanaren inguruko ikuspegia moralistak geure burua ezkutatzera eramatzen gaitu edo arrisku biziagopean lan egitera behartzen gaitu. Lan hauek guztiak aitortzen ez diren bitartean, gu esplo-tatuago egongo gara.

Ni nazioarteko mugimendu feministan eta hainbat mugimendu sozialetan parte hartu izan dut. Hortik nator eta horrek eraman nau etengabean hausnartzera eta behin eta berriro neure buruari galdetzera ea zergatik dagoen prostituzioa horren txarto ikusita... Gu errudun sentitzen ginen, mugimendu feminista abolizionistak patriarkatuak erabiltzen gaituela esaten zuelako.

Ez dut esango prostituzioa lanbide matxista ez denik, baina ezin da esan ezein lanbide matxista ez denik. Prostituitu, denok prostituitzen gara sistema kapitalista patriarkalean; guk zerbitzu sexualekin egiten dugu, beste batzuek euren burmuinarekin, euren eskuekin...

Guk geure zerbitzu sexualekin bizi ahal izateko modua

aurkitu dugu, jendarte honetan emakume ona izatea den horretatik deskonektatzen ikasi dugu eta hau guztiz apurtzaile eta ahaldungarria da. Norbaitek puta deitzen dizunean, ez zaizu zuri esaten ari, emakume guztiei baizik

Abolizionista ez den feminismoa ere abolizionistek interpelatuta sentitu da eta gure artean aliantzak sortu ditugu.

⌚ **Badirudi azken aldi honetan abolizionismoa garrantzia hartzen eta zabaltzen ari dela, zuen ahalduntzearen aurreko erreakzioa al da hori?**

Ez dut uste abolizionismoak askoz botere gehiago daukanik. Gertatzen ari dena da gu ikusgarritasuna irabazten ari garela, beldurrekin apurtzen hasiak gara, armariutik irteten. Aurpegi ezagun asko daude honezkero, Espainiako Estatuan esparru politikoak hartu ditugu, oraintxe berton Estatua interpelatzen ari gara.

Abolizionismoa oker dabil; ez gara hainbeste sexu langile benetako estigma sakonki eraitsi dugunok, ez gara hainbeste gure zerbitzu sexualetatik bizitzeaz lotsarik edo beldurrik ez daukagunok.

Abolizionistek historikoki hitza izan dute, zigortu egin gaitutze, jazarri egin gaitutze. Gutako askok indarkeria instituzional izugarria pairatu izan dugu.

Espainiako Estatuan jazarpena atzerritar-legearen bitartez erabiltzen da. Sexu langileak ezin direnez jazarri sexu langileak izateagatik, migranteak izateagatik jazarzen dituzte eta, horrela, deportatu ahal dituzte. Sexu lana irtenbide laboral gisara erabiltzea erabaki duten emakumeen kontra migrazio kontrola erabiltzen da.

⌚ **Zenbaiten iritziz, prostituzioa eta trata gauza bera dira, "aske" aukeratutako prostituziorik ez dagoela diote. Zuek, ordea, beste jarrera bat daukazue.**

Sexu lana erabaki propioz egiten dutenak -nahiz eta ez dudan uste lana aske aukeratzerik dagoenik, ezein lan ere ez, hori pentsatzea bai da utopikoa-, pertsona horiek lan sexualetik bizitzea eta bizirautea erabaki dute, honek dakarren guztiarekin, beste edozein lanbide bezala, hau ere labide matxista dela ulerturik eta errealitate hori onarturik.

Abolizionistek esaten dute sexu langileen %90 trata egoeran daudela; nik esango nuke mundu honetako pertsona guztiun %90 esplotazio egoeran eta gustuko ez dugun lanean aritzen garela eta biztanleriaren %10 baino ez dela bizi gustatzen zaien lanetik. Beraz, deuseztatu beharko litzatekeena lana da.

Trata egoeran dauden pertsonak lan sexuala egitera behartuak izaten dira, mehatxupearan eta esklabo moduan. Gaur, XXI. mendean, gizakien esklabotza existitu egiten da eta lan sexualaz bestelakoetan ere bai.

⌚ **Sexu lana lantzat aitortuko balitz, honek patriarkatua eta emakumeen esplotazioa betikotuko al Luke, zenbaitek esaten duten bezala?**

Sexu lana aitortzeak ez du patriarkatua betikotuko; aitzitik, eraldatu egingo du. Patriarkatua betikotu egingo da mugimendu feminista eta sozialek klase kontzientzia ez daukaten bitartean, emakumeen gaitasunek, sexualitatearen eta gorputzen ahalduntzeak patriarkatuak ezartzen duenek harago egin dezaketela onartzen ez den bitartean.

Sexu lanaren aitortza premiazkoa dugu indarkeria egoerak salatu ahal izateko, beste herritar batzuek dauzkaten eskubide berberak eskuratu ahal izateko: osasuna, etxebizitza...

Etorkizun utopiko batean sexu lana desagerrarazi nahi badugu, sexu lana ez ezik, jendarte osoa ere eraldatu behar dugu. Kasu honetan sexu langileok erabakiko genuke lan hori egiten jarraitu nahi ote dugun.



Editorial

Pasada ya la resaca del 8 de marzo y el subidón de adrenalina feminista, estamos ya llegando al final de curso. Un curso repleto de reivindicaciones, peleas y propuestas. Los sectores feminizados y relacionados con trabajos de cuidados han estado en pie de guerra ocupando calles e instituciones, visibilizando lo que nadie quiere ver, dignificando el trabajo que nadie quiere hacer.

La pelea contra la brecha salarial se ha convertido en el tema estrella de las agendas políticas y económicas. ¡Ahora parece que todas estamos en el mismo barco! Sabemos que no, nosotras no reivindicamos más mujeres empresarias explotadoras, ni sueldos desorbitados para seguir consumiendo como dicta el sistema. Nosotras reivindicamos otro modelo económico y político que sitúe la vida en el centro, reconozca todos los trabajos y reparta de manera justa los cuidados sin explotar, esclavizar, ni invisibilizar a nadie.

Porque, en realidad, de eso trata nuestra lucha. De salir de este sistema, de organizarnos de otra manera, de no jerarquizar las opresiones sino luchar contra ellas de manera integral y colectivamente, porque no nos liberaremos todas mientras una sola de nosotras no sea libre.

Y así hemos llegado a junio, cansadas pero contentas, organizadas, aliadas y enredadas para hacer frente a este capitalismo salvaje.

Nosotras no reivindicamos más mujeres empresarias explotadoras, ni sueldos desorbitados para seguir consumiendo como dicta el sistema.

Nosotras reivindicamos otro modelo económico y político que sitúe la vida en el centro, reconozca todos los trabajos y reparta de manera justa los cuidados sin explotar, esclavizar, ni invisibilizar a nadie.



La igualdad, pura estrategia institucional

Organizadas y entretejiendo nuestras redes, desde el sindicalismo feminista vamos a cortar de raíz con el fraude de los planes de igualdad. Sabemos bien de dónde venimos, pero aún mejor hacia dónde vamos

Como la erupción de un volcán, en nuestra sociedad han estallado las ansias por conseguir la igualdad. Como si fuese lava moldeándose año tras año bajo la superficie, el feminismo ha estado en lucha, lentamente, invisible, hasta que, por fin, las reivindicaciones de las mujeres* han llegado a la agenda política.

Los debates, la acción, no rendirse, el triunfo de nuevas formas de lucha han dotado al feminismo de un lugar en las instituciones de Euskal Herria.

Pero la postura de las instituciones y entidades no ha sido siempre sincera, se han sumado a la ola del feminismo, pero la mayoría de las veces sin ninguna connotación crítica ni ideológica. Esto ha generado conflictos de intereses y clientelismo en el marco de la igualdad. Las políticas públicas de igualdad han fracasado, ya que no han tenido en cuenta las situaciones cotidianas de las mujeres*, tales como la precariedad, la violencia, los trabajos de cuidados... Desde las instituciones no se ha realizado una denuncia firme ni se han aplicado medidas para cambiar la situación de raíz. En lugar de eso, se ha maquillado la realidad, se han realizado cambios superficiales y se han adoptado leyes completamente insuficientes. Han ido pergeñando el fraude poco a poco, apropiándose de los discursos del movimiento feminista y moldeándolos sin compasión a su favor y a sus intereses. Por eso, las políticas puestas en marcha no son eficaces y, mucho menos, instrumentos útiles para llegar a una igualdad real.

Hemos visto cómo las y los lacayos del capital se sienten cómodos y protegidos en el juego de la estructura heteropatriarcal, sin cambiar absolutamente nada pero atribuyéndose haber llevado a cabo una revolución. A esas instituciones retrógradas, capitalistas y machirulas no les conviene la liberación de las mujeres, no les conviene el feminismo, precisamente porque pone en tela de juicio su poder y sus privilegios. El feminismo va a la raíz, a los cimientos de la historia del patriarcado. No se conforma con dar una vuelta a medias, sino que quiere darle la vuelta completa al sistema y hacerlo dos veces. Ponemos en tela de juicio las acciones y las formas de actuar de las instituciones, rechazamos los intereses económicos, hemos puesto sobre la mesa la violencia institucional, hemos repensado las formas históricas de lucha, hemos ocupado los espacios de los hombres, hemos interpelado directamente las vulneraciones de derechos que provoca la lógica del capitalismo, por tanto ¿no vamos a ser una amenaza? Han intentado neutralizar nuestra fuerza y es por eso por lo que se acepta el discurso del feminismo en las instituciones, aunque examinado y mirado con lupa.

Han introducido nuestras reivindicaciones en la agenda, de una forma táctica, porque el feminismo no es de ninguna de las maneras su estrategia, no lo entienden a largo plazo. Han dotado al feminismo de legitimidad tácticamente, impulsaron la creación de Emakunde tácticamente, han obligado a las empresas a hacer planes de igualdad tácticamente, otorgan premios

y subvenciones a asociaciones, empresas o consultorías que impulsan la igualdad tácticamente. Mientras tanto, las mujeres* continuamos ocupándonos de los trabajos de cuidados, seguimos en sectores precarios y soportando violencia, por el mero hecho de ser mujeres. El choque entre el espacio público y el privado sigue vigente. Aunque las mujeres nos hayamos integrado en el mundo laboral y hayamos ganado visibilidad en el espacio público, nuestra legitimidad sigue sin reconocerse, lo que nos encadena a una situación de subordinación y reduce las posibilidades de que se respeten nuestros derechos.

Hemos apostado por un sindicalismo feminista, impulsando múltiples debates en la estructura del sindicato. Sabemos bien de dónde venimos, pero aún mejor hacia dónde vamos. Hemos imbuido nuestro sindicalismo del proceso feminista, poniendo sobre la mesa que la formación es imprescindible, pero aún más importante dotar a los cuidados de legitimidad y de centralidad.

Ya tenemos avivada la lucha dentro de casa, pero ¿qué es lo que está sucediendo en los centros de trabajo? La nueva ley dice que las empresas con una plantilla mayor de 50 trabajadoras y trabajadores están obligadas a contar con un plan de igualdad. Por parte de las empresas, en general, se actúa con dejadez e irresponsabilidad: lograr la igualdad entre trabajadoras y trabajadores y acabar con las condiciones deficientes y desiguales de las mujeres por lo visto no es urgente. De hecho, como tienen la obligación de ello, su principal necesidad es contar con un plan de igualdad, sin importarles si va a ser útil o no. La mayoría de los planes son de chiste, sin objetivos, realizados sin una formación en políticas de igualdad, sin presupuesto, sin responsables, hojas llenas de palabras sin sentido alguno. Podemos decir que los planes de igualdad son un absoluto fracaso. No han transformado la falta de igualdad en los centros de trabajo, no han cambiado de raíz la situación de las mujeres ni analizado los factores de desigualdad, no sirven para hacer frente a las situaciones de discriminación que sufrimos diariamente en el mundo laboral. Por tanto, no se entienden como instrumentos eficaces y como una práctica revolucionaria; se tratan para las empresas de un lavado de cara y de un mero trámite para, en muchas ocasiones, recibir subvenciones.

Ante esta cruda realidad, seguiremos luchando y denunciando el fraude de los planes de igualdad. Para construir un modelo de país feminista, primeramente debe estar garantizada la igualdad, una igualdad real,

creíble y, sobre todo, construida con la implicación y participación de todas y todos. Los planes de igualdad deben ser críticos, deben percatarse de la discriminación que las empresas ejercen hacia las mujeres y aplicar políticas reales de igualdad para cambiarlo. Hay que llevar a los convenios colectivos las medidas y acciones efectivas que se recogen en los planes. Ahí reside una de nuestras luchas. Vemos que la llave está en la formación de las delegadas y delegados, pero no es su responsabilidad realizar un plan de igualdad. Es decir, pretendemos que se empoderen cara a las negociaciones, explicándoles cuáles son los aspectos que deben recoger obligatoriamente los planes.

Las políticas públicas de igualdad han fracasado, ya que no han tenido en cuenta las situaciones cotidianas de las mujeres*, tales como la precariedad, la violencia, los trabajos de cuidados... Desde las instituciones no se ha realizado una denuncia firme ni se han aplicado medidas para cambiar la situación de raíz.

Realizar un buen plan de igualdad es responsabilidad de la empresa y, para ello, deberá contratar a una persona especializada en políticas de igualdad. Nuestras delegadas y delegados, por medio de la formación, podrán hacer un seguimiento del plan y garantizar que se recogen en el mismo todos los puntos imprescindibles.

Denunciaremos todos aquellos planes que no se hayan realizado con honradez y sinceridad y también aquellos que no se estén cumpliendo. La apuesta por la igualdad debe ser real y, si no es así, responderemos por medio de nuestra acción sindical y denunciaremos públicamente la corrupción que se está produciendo. Si en alguna empresa en la que se haya firmado el plan de igualdad sucede esto, retiraremos nuestra firma y también lo denunciaremos públicamente, dejando en evidencia su negocio y su falta de interés.

En el camino hacia la igualdad, nuestra lucha queda envenenada en manos de las instituciones y de las empresas. No les permitiremos que sean nuevamente un obstáculo; por encima de todas las dificultades, nos organizaremos, entretejeremos nuestras redes y les obligaremos mediante nuestra acción sindical feminista a negociar y a cumplir nuestras reivindicaciones.

Hemos pedido la modificación de la normativa sobre cotización de los contratos a tiempo parcial

La justicia europea reitera que la normativa de la Seguridad Social española discrimina a las mujeres trabajadoras respecto a los contratos de jornada parcial

En el año 2012 el Tribunal de Justicia de la Unión Europea y el Tribunal Constitucional estimaron que el sistema de cómputo de cotización de los contratos parciales era discriminatorio y contraria al derecho comunitario.

En la actualidad tienes que trabajar mucho más para poder llegar a los plazos de cotización. En el caso de la mujer que denunció, tenía que trabajar 98 años para cumplir con los 15 años de cotización obligatoria.

Además, como la mayoría de estos contratos se nos adjudican a las mujeres (en el 80% de los casos), también resolvieron que el sistema de contabilización nos dificulta y obstaculiza el acceso a la pensión de jubilación. Admitieron que existe una situación de discriminación a la hora de percibir la pensión de jubilación.

El Estado dejó sin efecto la normativa denunciada en 2013 y estableció una nueva; sin embargo, desde Europa se han ratificado en que la norma sigue siendo discriminatoria, ya que las mujeres tenemos que hacer un esfuerzo mayor si se trabaja con contratos parciales para acceder a la pensión.

contratos parciales para acceder a la pensión.

En LAB hemos luchado contra esto. Hemos denunciado la pasividad del Gobierno y llevamos a cabo reclamaciones masivas ante las oficinas de la Seguridad Social, así como una campaña

informativa en los sectores y centros de trabajo donde se concentran principalmente las mujeres contratadas a tiempo parcial (comedores, limpieza, educación...).

Hemos denunciado nuevamente el fraude de los contratos parciales que perpetúan la precariedad durante toda la vida de las

mujeres. Se inventaron para facilitar la incorporación de las mujeres al mundo laboral, imponiéndonos, de esta manera, los trabajos de cuidados. La característica principal de los contratos parciales es su carácter voluntario y ya sabemos bien lo falso de esta premisa. La que trabaja solo unas pocas horas es una desempleada estructural. Y, además, entrar en estas condiciones en el mercado laboral no es una vía para adquirir derechos laborales y sociales. Lo que ocurre con la pensión de jubilación es el ejemplo más claro.



Nuestras reivindicaciones son claras:

- ⌚ Para solucionar el problema de las cotizaciones: un día de trabajo – un día de cotización.
- ⌚ Políticas de reducción y distribución del tiempo de trabajo
- ⌚ Acabar con los excesos en el uso de los contratos parciales
- ⌚ Equiparar por completo el régimen las trabajadoras del hogar al régimen general de la Seguridad Social
- ⌚ Políticas feministas de conciliación y corresponsabilidad efectiva entre la vida laboral y social

Ya es hora de traer los contratos parciales al centro de la agenda. Es una cuestión política, no laboral. Necesitamos políticas feministas para cambiar la normativa sobre cotización de los contratos a tiempo parcial discriminatoria para las mujeres.

Fotonoticias




Las mujeres también enfermamos en el trabajo

Hace ya muchos años que comenzamos nuestra lucha por la salud laboral y lo hicimos movilizándonos contra los accidentes mortales. Después dimos un paso adelante. Dijimos que hay que contemplar la salud laboral en su conjunto y en profundidad y empezamos a dar la importancia que merece al grave problema de las enfermedades laborales. Este año hemos seguido avanzando y hemos comenzado a tratar con la trascendencia que tiene el grave problema de la salud laboral de las mujeres. La mayoría de las enfermedades laborales de las mujeres se invisibilizan, ya que no se reconocen como una conciencia directa del trabajo. Ésta también será nuestra lucha.



Cada vez más mujeres en el sindicato

Este curso que termina ha sido significativo para el feminismo: llevamos a cabo las jornadas de la Marcha Mundial; la huelga del 8 de Marzo fue todo un éxito, y ahora estamos organizando las jornadas feministas. LAB ha formado parte de todo ello, sin dejar de lado tampoco los retos que nos marcamos a nosotras mismas. Durante el periodo concentrado de elecciones sindicales ahí hemos estado, sin descanso. Y los datos son un reflejo de ello: el sindicato se encuentra en máximos históricos y, nuevamente, el número de delegadas no ha dejado de crecer. Hemos conseguido que más del 40% de nuestra representación sean mujeres. Fortalecer y extender el sindicalismo feminista también es una forma de impulsar la lucha feminista en Euskal Herria.



Por los derechos de las trabajadoras de hogar

El derecho de ser cuidadas y de no tener que ser cuidadoras es una antigua reivindicación del sindicato, pero no por ello es una reivindicación que se nos haya quedado anticuada. Al contrario, cada vez le conferimos más importancia, porque no hay forma de dar la vuelta a la opresión de las mujeres trabajadoras, si no logramos un sistema que reconozca y reorganice los trabajos reproductivos. Será una larga pelea, que debemos hacer paso a paso y marcándonos objetivos intermedios. Uno de ello, sin duda, es defender a las trabajadoras de hogar asalariadas y lograr que sean dueñas de sus derechos. En LAB deseamos que el comienzo de la lucha por un convenio en la CAV sea también el comienzo de un camino fructífero y valioso.



Cuando la lucha tiene rostro de mujer

La reorganización de los trabajos de cuidados es imprescindible para que la dignidad pueda llegar a todas nuestras vidas. Deben sacarse del ámbito privado y descargar las espaldas de las mujeres de ellos. Por el contrario, no se han desplazado al ámbito público para librarnos de ese peso, no se ha hecho asumiendo responsabilidades, ni ha tenido como objetivo una reorganización del sistema. Lo que han hecho ha sido organizar un inmenso mercado alrededor de nuestro trabajo. En las políticas sobre los cuidados han prevalecido los intereses económicos particulares y el poder desmedido del capital.

Y ha pasado lo que tenía que pasar: esa explotación de las mujeres y ese desprecio hacia nuestro trabajo se ha convertido en una fuente de conflictos. Estamos luchando contra la precariedad en los servicios a domicilio, en las residencias de la tercera edad, en las empresas de limpieza o en los comedores. Pero estas luchas van más allá de una pelea por nuestros derechos laborales. Es necesaria toda una revolución en torno a los trabajos de cuidados, revolución que será una de las victorias más valiosas para transformar este sistema capitalista.

Necesitamos el reconocimiento del trabajo sexual

Desmontar los mitos sobre el trabajo sexual y la lucha por el reconocimiento de esta actividad como trabajo ha llevado a Paula Ezkerra, activista feminista y trabajadora sexual empoderada, a sindicarse en la IAC (Intersindical Alternativa de Catalunya). Conversamos con ella sobre este polémico tema desde su experiencia personal y colectiva.

⌚ Paula, estás organizada en la IAC, en la sección sindical de trabajo sexual. ¿Por qué es importante la sindicalización de las trabajadoras sexuales? ¿Por qué no en un sindicato autónomo?

Para nosotras, en este proceso, era importante estar acompañadas por otros trabajadores y trabajadoras que nos reconocieran, que compartieran la misma línea política y nuestra línea laboral.

La IAC hizo todo un proceso de debate y abrió las puertas a la creación de una sección sindical específica de trabajo sexual. Eso queremos, una construcción colectiva, no algo autónomo.

⌚ ¿Qué tiene el trabajo sexual para que no se quiera reconocer como trabajo?

Aquí confluyen muchos prejuicios, estamos hablando de un trabajo que ha existido históricamente y que ha sido menospreciado, porque generalmente ha sido realizado por mujeres. Existe un control social sobre los cuerpos de las mujeres y sobre lo que es una buena o una mala mujer; todo esto se enlaza con esta profesión.

Históricamente las trabajadoras sexuales han sido vistas como algo aberrante, denigrante, como mujeres inmorales, mujeres sin límites, ambiciosas, a las que no importa nada, únicamente el dinero de los hombres; este tipo de visiones han dominado el imaginario.

Todo esto tiene que ver con la moral y se traslada también a la pobreza. Quienes ejercen trabajo sexual históricamente son mujeres pobres.



⌚ Habláis de feminismo puta, a qué os referís. ¿Cuál es vuestra relación con el feminismo?

Yo vengo del movimiento feminista internacional y de participar en diferentes movimientos sociales. Esto me ha hecho reflexionar continuamente y preguntarme una y otra vez por qué está tan mal vista la prostitución... Nosotras nos sentíamos culpables porque el movimiento feminista abolicionista decía que el patriarcado nos utiliza.

➤ No nos proveen de derechos los trabajos que no están reconocidos. La visión moralista sobre nuestro trabajo hace que nos escondamos o trabajemos en situaciones de más riesgo.

Mientras no se reconozcan todos estos trabajos, más explotadas estaremos

No voy a decir que la prostitución no es una profesión machista, pero tampoco se puede decir que exista una profesión que no lo sea. Prostituirnos, nos prostituimos todas en este sistema capitalista patriarcal, nosotras lo hacemos con servicios sexuales y otras lo hacen con su cerebro, con sus manos...

Nosotras hemos encontrado la manera de poder vivir de nuestros servicios sexuales, hemos aprendido a desconectar de lo que es ser una buena mujer en esta sociedad y esto es absolutamente rompedor y empoderador.

derador. Cuando alguien te dice puta no te lo está diciendo a ti, se lo está diciendo a todas las mujeres.

El feminismo no abolicionista también se ha sentido interpelado por parte de las abolicionistas y se han generado alianzas entre nosotras.

⌚ **El abolicionismo parece estar adquiriendo cierta relevancia y espacio en los últimos tiempos. ¿Es un reacción ante vuestro empoderamiento?**

No creo que el abolicionismo esté adquiriendo más poder. Lo que está pasando es que nosotras estamos adquiriendo más visibilidad, hemos empezado a romper con los miedos, a salir del closet (armario). Hay ya muchas caras visibles, hemos ocupado espacios políticos en el Estado español, estamos interpelando al Estado ahora mismo.

El abolicionismo se equivoca; no somos tantas las trabajadoras sexuales que hemos roto profundamente con el estigma real, que no tenemos vergüenza ni miedo de vivir de nuestros servicios sexuales.

Las abolicionistas históricamente han tenido la palabra, nos han castigado, nos han perseguido. Muchas de nosotras hemos sufrido una violencia institucional atroz.

En el Estado español se utiliza la persecución a través de la ley de extranjería. A las trabajadoras sexuales, como no se les puede perseguir por trabajadoras sexuales, se les persigue por migrantes y así las pueden deportar. Hay un control migratorio sobre las mujeres que han decidido ejercer el trabajo sexual como salida laboral diferente a la tradicional.

⌚ **Hay quienes mantienen que prostitución y trata son lo mismo, que no existe la prostitución "libremente" elegida. Vosotras, por el contrario, tenéis una postura diferente a ésta.**

Las personas que ejercen el trabajo sexual por decisión propia -aunque no creo que exista la libre elección en el trabajo, en ningún trabajo, pensar eso sí que es utópico- son aquellas personas que deciden vivir y sobrevivir del trabajo sexual con todo lo que ello conlleva, entendiendo que es una profesión machista, como cualquier otra, y asumiendo esta realidad.

Las abolicionistas dicen que el 90% de las trabajadoras sexuales están en situación de trata, yo diría que el 90% de las personas que existen en este mundo trabajamos bajo explotación y aunque no nos guste el trabajo y solo el 10% de la población vive del trabajo que les gusta. Por lo tanto, lo que habría que eliminar es el trabajo.

Las personas en trata son aquellas obligadas a ejercer trabajo sexual coaccionadas, esclavizadas. Hoy, en el siglo XXI, la esclavitud de los seres humanos existe y no solamente en el trabajo sexual.

⌚ **Reconocer el trabajo sexual como trabajo ¿perpetuaría el patriarcado y la explotación de las mujeres, tal y como dicen algunas voces?**

El reconocimiento del trabajo sexual no va a perpetuar el patriarcado, al contrario, lo va a transformar. El patriarcado se va a seguir perpetuando mientras los movimientos feministas y sociales no tengamos conciencia de clase, mientras no se reconozca que las capacidades de las mujeres, el empoderamiento de la sexualidad y los cuerpos puedan ir más allá de lo estipulado por el patriarcado.

Necesitamos el reconocimiento del trabajo sexual para poder denunciar situaciones de violencia, para tener acceso a los derechos que tienen otras ciudadanas: salud, acceso a la vivienda...

Si queremos eliminar el trabajo sexual en un futuro utópico hay que transformar toda la sociedad, no solamente el trabajo sexual. En este caso, seríamos las trabajadoras sexuales quienes decidimos si queremos o no seguir ejerciéndolo.